

SESSION 2026



**CAPES
CONCOURS EXTERNE ET CAFEP
(BAC + 3)**

SECTION : LANGUES RÉGIONALES

BASQUE

ÉPREUVE D'ADMISSIBILITÉ 1

L'épreuve consiste en une composition en langue régionale à partir d'un sujet s'appuyant sur un dossier constitué de documents de nature variée. L'épreuve porte sur une question inscrite au programme. Elle vise à la vérification des connaissances disciplinaires du candidat. Elle permet d'évaluer la maîtrise de la langue et la connaissance des cultures de l'aire linguistique concernée.

Durée : 4 heures

—

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Il appartient au candidat de vérifier qu'il a reçu un sujet complet et correspondant à l'épreuve à laquelle il se présente.

Si vous repérez ce qui vous semble être une erreur d'énoncé, vous devez le signaler très lisiblement sur votre copie, en proposer la correction et poursuivre l'épreuve en conséquence. De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, vous devez la (ou les) mentionner explicitement.

NB : Conformément au principe d'anonymat, votre copie ne doit comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé consiste notamment en la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de la signer ou de l'identifier. Le fait de rendre une copie blanche est éliminatoire.

INFORMATION AUX CANDIDATS

Vous trouverez ci-après les codes nécessaires vous permettant de compléter les rubriques figurant en en-tête de votre copie.

Ces codes doivent être reportés sur chacune des copies que vous remettrez.

▪ **Concours externe du CAPES de l'enseignement public :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
LBE	0440E	101	4061

▪ **Concours externe du CAFEP/CAPES de l'enseignement privé :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
LBF	0440E	101	4061

En vous fondant sur l'analyse et la mise en résonance des quatre documents ci-dessous et en vous référant au programme du concours, vous développerez, dans une composition en langue basque, une réflexion structurée sur le thème particulier du retour des émigrés basques et de leur place au sein de la société basque de la période historique embrassée par les documents. Vous n'oublierez pas de prendre en compte la dimension littéraire des trois premiers documents.

Documents soumis à l'étude des candidats:

- 1-Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, Donostia, Erein, 1988, p. 354-357.
- 2-Poème « Pattin dirudun ez fededun » de Gratien Adema, *Artzain beltxaren neurtitzak*, Bilbao, Euskaltzaindia, 2008, p. 75-78.
- 3-Jean-Pierre Iratchet, *Antton*, Etor, Donostia, 1990, p. (roman paru sous la forme d'un feuilleton durant l'année 1946 dans la revue hebdomadaire *Herria*, à Bayonne).
- 4-"Amurrioko indianoak", <https://www.amurrioturismo.com/indianoak-amurrion> (résumé en ligne d'un article paru en 2008 dans le n°35 de la revue ethnographique de la ville d'Amurrio *Aztarnak*).

Document n°1

[...]

Laguna eta biok korri egin genuen magnolioaren azpiraino, eta –ez hainbeste osabaren esanak jarraitzearren, baizik eta eguraldiak horretara bultzatzen zuelako– itzala ematen zigun zuhaitzaz hitz egiten hasi ginen: magnoliak, eta bai halaber palmondoak, Ameriketara egondako jendearen etxe atari guztietan egoten zirela, eta hor bakarrik, ez beste inon; eta zein ote zen joera horren arrazoia.

Zer ote ziren zuhaitz berezi haiek indianoentzako? Oroigarriak? Garaipen edota aberastasun harro baten ikurrak? Eta zein zen beraiek adierazten zuten sentimendua? Bizitzaren puska bat beste kontinente batean utzi duela konprenitu duenaren sentimendu xamurra? Ala soilik handinahia?

Galdera haiekin endredatuta genbiltzan osaba bandeja batekin azaldu zenean.

–Rhineko ardoa, kopa ttikiak, Espainiako olibak, Marokoko antxoak... –errezitatu zuen gauza bakoitza mahaian utziz–. Zer, ondo iruditzen al zaizue?

–Hemeretzigarren mendekoa zara, osaba, baina oso gizon formala halere –ametituen.

–Goxoa al dago? –galdetu zigun probatu genuenean.

–Especiala gaurkoa bezalako berorako –esan genion.

–Pozten naiz, bada. –Eta eseri egin zen bera ere–. Zertaz ari zineten, jakin baliteke?

–galdetu zuen ondorenean. Sospetxeriaz begiratzen zigun.

–Oso zintzo portatu gara. Ez dugu behar ez zenik aipatu –defendatu zen laguna. Eta ordura arte hitz egindakoa azaldu zion.

–Ez da gai itsusia, ez –jarri zen bera pentsakor.

–Zuri zer iruditzen zaizu?

–Ez dakit ondo, zeren etxea dagoen bezala erosi bainuen, lorategi eta guzti. Baina nik uste Ameriketara joan eta pixka bat liluraturik gelditzen zirela hango paisaia eta jendearekin. Eta gero, handik hona itzultzen zirenean, bada, hango gauzen muestra bat ekarri nahi izaten zutela.

–Orduan zuretzat herrimin baten seinale lirateke. Ez hara joan eta hemengoarekin akordatzen denarena, ez hainbestetan aipatu den herrimin hori, baizik eta alderantzizkoa –esan genion.

–Nik ez dut uste panparroikeria eta bereizteko gogoia edukiko ez zutenik, baina, nolana ere, beste arrazoia garbiagoa iruditzen zait. Halere, nik ez nioke zuek bezala deituko. Ez dago malenkoniarik indianoen itzuleran. Bakarrik gauzak erakusteko premia. Esate baterako, etxe hau egin zuen gizonak, nire ilobak jakingo du...

–Zer edo zer –esan nion.

–Telleria Uribe zuen izena, eta itsasoa zeharkatu eta segituan aberastu zen, Montevideoko arropa denda guztien jabe bihurtu zela uste dut. Eta hamar urte han pasatu eta itzuli egin zen Obabara. Baina bai makina bat gauzekin itzuli ere!... Ez bakarrik zuhaitz eta lore horien haziekin, baita animalia pila batekin ere. Papagaioak, loritoak, tximuak...

–Tximuak ere bai? Hori ez nekien –aitortu nion.

–Ez? Bada, oso famatuak egin ziren paraje horietan, batez ere elastikoz eta bonbatxoz jantzita edukitzen zuen bat, *Alberto* izenekoa. Jakina, garai hartan inork ez zuen hemen ezagutzen, ezta erretratuetatik ere. Kolore bizitako txoririk ere ez,

noski, baina azken batean txoriak ziren, hegodunak eta mokodunak, eta gustatu bai baina harritu ez zuten horrenbeste harritzen. Ordea, ume iletsuen antza zeukaten animalia haiek... gainera, lehen esan dudan Alberto horrek Montevideoko zirku batean lana egindakoa izan behar zuen, piririka eta gainerako zelebrekeriak egiten zekiena, eta zuek esango didazue... zer gehiago behar zen, bada, inguruetako jende guztia liluratzeko?... baina azkenean gorde egin behar izan zituen.

–Gorde? Zer, bada? –galdetu genion irribarrez. Baina ordurako hasia zen laguna niri begiratuak luzatzen, osabaren kontaeran zerbait ezagun atzeman izan balu bezala. Baina nik ez nion adierazi nahi zidana ulertzen. Gautierren hitzekin esateko, kostatzen zitzaidan *dantzariaren pausoak* sentitzea.

–Etxe hau peregrinazio leku bihurtu zelako, horregatik gorde behar izan zituen Alberto eta bere anai-arrebak –segitu zuen osabak–. Antza denez, bailara guztiko jendea etortzen zen tximuak ikustera, jende izugarri, aste egunetan asko eta jaietan gehiago. Eta kokatu lorategiaren inguru guztian eta algaraka hasten omen ziren segituan. Algara batean gizonak, algara batean amonak, algara batean den-denak. Benetako barre saioak izaten omen ziren, zenbaiti itolarriak ere ematen omen zion. Eta indianoa aurrenean gustura, pozik bere muestrak zeukan estimazioagatik; azkenerako ordea...

–Zeharo aspertuta –lagundu nion.

–Eta erdi erotuta ere bai. Pentsa... bakerik ez egun bakar batean ere, algarabia hura entzun behar beti. Handik aurrera, gorde zituenez geroz alegia, bakarrik herriko festetan uzten omen zituen bistara, San Pedro egunean eta.

–Zuk ikusi al zenituen? –galdetu zion lagunak.

–Ez, jaio berria nintzen ni orduan. Eta istorioa ere ez nuen hemen ikasi, baizik eta Montevideon.

–Bai? Eta noren bitartez? –galdetu zion lagunak. Eta intentziaz betetako bere begiratu hura zuzendu zidan oster.

–Noren bitartez? Bada, indianoaren semeak berak kontatuta. Seme hori, Samuel Telleria Uribe, Ameriketara joan zen, baina ez bere aita bezala, lan bila eta horrela, baizik eta abenturan, Amazonia esploratzeko asmoz edo. Eta han bilatu nuen nik, Montevideoko *Café Real* delakoan egiten zen tertulian; eta tximuen kontu hori ere hantxe entzun nion. [...]

Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, 1988, Erein, Donostia, 354-357. or.

Document n°2

« PATTIN DIRUDUN EZ FEDEDUN » (1880, Lore Jokoetan aurkeztua)

Ez du urthe hanbatik sor herritik juanik,
Pattin ethorri zaiku aberats jadanik,
Agur eta ohore nahiz denen ganik ;
Nor da orai herrian Pattin bezein jaunik?

Pattin aberasteak hola badu jaundu,
Nola gerthatzen zaio ez baita gizondu?
Giristino legea utzirik omen du...
Bihotza nekhez dio diru hutsak ondu.

Pattinen balentria, herrirat jin eta,
Gur' Erlisioenez maiz trufatzen baita.
—«Jainko legea, Pattin, ez dirozu maita ;
Huni ihes baitzare ibili sokseta».

Eskola guttirekin jua bezala jinik,
Bera beizik ez zaio nihor jakintsunik:
—«Apez hoiek bezenbat, dio, badakit nik,
Ez zazuela sinhets hoikien erranik».

Pattini gero multsa diote ebatsi !
« Hire ohoinak, Pattin, milaka goaraintzi !
Haren egitatea ez dakikek gaitzi...
Hortan segurik ez dik aphezik sinhetsi.

Bere sosak galdurik denean gelditu,
Lausengariak zaizko Pattini guttitu.
Jakitatez ere bai bera da ttikitu ;
Lehengo balentriak ixilduak ditu.

Urrundik jin hoieri gauden beha orai,
Gu bezala fededun diren ez edo bai.
Eia gure agurren hartzeko diren gai ;
Zer othe dituzkegun, anai ala etsai.

Amerikano edo hiritar hoietan
Fededunak ezagun dire ainitzetan ;
Ohore holakoeri eta, lorietan,
Gure onets dezagun Eskual herrietan...

Gratien Adema « Zaldubi », *Artzain beltzaren neurtitzak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2008, 75-78. or.

Document n°3

“VI-ANTTON SOSDUN AIREMENDIN”

Frantziaren gainean hedoi beltzenak bilduak baziren, Etxebazterrean egunak edertuak ziren. Martxoan jadanik, etxe berriaren gainean zureriaren ezartzen hasiak ziren eta beharrik apherileko teilak emanak zituzten, zeren apheril ondarra dena denbora txarretan joan zen.

Eta orai, uztaila. Etxebarneko mehaxturuntzetan ari dira Kayet Lekueder eta Manez Meharrri, Airemendiko bi mehaxturu hoberenak. Anttonek ikhusten du zer lana ibili duten aitak eta anaiek, hoinbertze zur eta taula geien oihanean botatzen berean, bainan ez du bere phartetik ere arrangurarik, aitaren manuz joana baitzen Ameriketarat eta ez baitu han denborarik galdu, guti hatzemanen baita Anttonek bezain laster horrek bezenbat ontasun bildu duenik.

Denek badakite Airemendin, Etxebazterreko Amerikanoa sosez ithoa ethorri dela. Bi urthe hautan, ez da nehor alfer egon eta ororen saria, orai etxe bizkarrean da, usaia den bezala, harginek etxearen estaltzea akhabatu dutelarik, teilatu izkinan ezarri duten lore eta berdura;

Jadanik hasiak dira, amaren nahitarat, bordatik etxe berrirat pusken karreatzen, gizonek ari direla tauladurak garbi eta garbi.

Agorrilaren hamarra, phesta ederra Etxebazterrean: goizetik etxe berrian arizan diren langile guziak hor dira konduen egiten. Hameka orenetan. Jaun erretora ari da etxe berriaren benedikatzen.

Eguarditan, konduak eginak dira. Anttonek emaiten du bakhotxari berea, orotarat laueta hogoita bortz mila libera.

Jaun erretorari ere egiten dio bere ikhustatea eta bertzalde mila libera elizarentzat, eta oro xoratuak daude sosa zoin aise dabilan.

Aita Erramun nigarra begietan dago plazerrarekin eta ama ere, zalhi bat eskuan, gorri gorria dabila, batekin eta bertzearekin elheketa sukaldea bere bi nexken eskuko utzirik, heiek ere, phestak airatuak ari baitira jateko guzieri erhiez xixiaka, hau jasta eta hura jasta, dotzena erdi bat gathu jeloskor marrakari eta gormant buztan xut ondolik dituztela.

Bada haro eta irri, egiteko guziak eginik, ezkaratz berrian jartzen direlarik bazkaltzeko. Jaun erretora bera hor da mahainaren erdian eta he! he! ez du iduri batere samur dela egun egin behar duen bazkariatz eta ere etxe berri huntan den zorionaz.

Antton khanbiatu da Ameriketatik jinez geroz. Lehen zuen herabetasuna utzia du eta orai, bi eskuak sakelan, badu gizontasun berezi bat bere laguneri gustatzen zaiotena eta Anttonen erranek badute bethi aditzale.

Igandetan berriz pilotan hasia da, bainan lehen egiten ez zuena, orai bethi jokatu nahiz dabila.

Merkhatuetan ere abiatu da. Jan orduko, Espeletan erosi ditu aitak, duela bi urthe, untzi sariarentzat saldu behien ordainak doblea pagaturik: bizia goiti ari da gerla solas horiekin. Beharrik Anttonek segurtatua du Ameriketara bethi xuxen jinen zaion arranda.

Etxe berrian sartu orduko, Anttonek gauza bat du buruan eta horra zer den, Marixani gaztigatzen duen bezala.

Ene Marixan maitea,

Gure etxe berria prest da eta gure ezkontzeko tenorea jina. Undarreko aldian adiarazten zinautan nahiago zinuela hirian bizi, bainan pentsatzen dut gogoetak behar den bezala eginen dituzula, eta elgarri eman ginuen hitza atxikiko. Zuk nahiko duzunean, ni libro izanen niz. Lehen bai lehen hobe. Gure ama xahartzen ari da akhidurarekin, ni hogoi ta zazpigarren urthean eta gure etxe berria etxek' andere berriaren beharretan da. Nahi baduzu jinen nauzu ikhusterat xehekiago mintzatzeko ez bazira zuhaur hunat jiten ahal.

Bethi zuri fidel,

Antton.

Hirur egunen buruko errepostua ukaiten du.

Ene Antton maitea.,

Nehundik ahal baduzu, zato ortzegunean Baionarat. Ortzegun goizean etxeakoak kanpoan ditut. Gararat jinen niz biderat eta hemen mintzatuko gira xeheki. Uzten zitut. Lanez bethea niz.

Zure beha,

Marixan.

Jean-Pierre Iratchet, *Antton*, Etor, Donostia, 1990
(1946ean *Herria* aldizkarian atalka argitaraturiko eleberria)

Document nº4

« AMURRIOKO INDIANOAK »



Euskal Herria beti izan da, historikoki, emigranteen lurraldea, batez ere XIX. mendearen bigarren erdialdearen eta XX. mendearen hasieraren artean. Argentina, Uruguai, Kuba eta Mexikoko Errepublikak Euskal Herriak baino askoz ere soldata handiagoak eskaintzen zituzten, zela lurra lantzen, zela meategi batean. Espiritu abenturazalea ere bazegoen.

Lurralde haietara joandako asko ez ziren itzuli. Batzuek baino ez zuten lortu, eta horien artean gutxi aberastu ziren. Dirutza egindakoek euren estatus berria islatzen zuten etxeak eraiki zituzten. Luxuzko eraikinak, handitasunerako joerarekin, besteak beste zerbitzarietarako gelak eta kapera zituztenak.

Etxearen inguruan lorategiak eraikitzen zituzten, eta eremua kirolen bat egiteko (kantxako tenisa, frontoia...) gaitzen zuten. Horrez gain, estalperen bat eraikitzen zen autoa gordetzeko, baita lorezainarentzako etxetxo bat ere.

Indianoek bestelako gustu eta zaletasunak ekarri zituzten Amurrion: lehen autoak, bitxizaletasuna, bidaiatzeko zaletasuna, opera, lehen telefonoak, argazkilaritza, dotorezia... Bestalde, jaioterriari zioten maitasuna ere agertu nahi izan zuten, eta azpiegiturak hobetzen lagundu zuten.

Gaur egun, Amurrion agerikoa da indianoen presentzia, beraz, "aberats berri" haiek eraiki eta herriari eman zizkieten hainbat eraikin ikusi ahal izango dituzu.

Hona hemen Ameriketatik gozatu ahal izateko moduko diru nahikoarekin itzuli ziren zenbait amurriar.

URIBE FAMILIA

Hiru Uribe anaiak (José, Mateo eta Domingo) Mexikora joan eta hiriburuko bitxidenda batean aurkitu zuten lana. Urte batzuk geroago, negozioa erosi zioten nagusiar.

Dirua bildu zutenean, Amurrion bizi zen Gregoria arrebari bidali zioten eta honek aitaren baserria berri eta Gregoria Etxea bihurtu zuen. Blas Truchuelo semea ere Mexikora bidali zuten osabak hildakoan negozioa aurrera atera zezan.

Bitartean, Gregoriak bi alaba izan zituen: Margarita eta Fe. Blasek jabetza guztiak saldu eta Amurrion itzuli zen. Bere ondasunekin Margarita Etxea eta Fe Etxea eraiki zituzten. Familia horrek lurra eta dirua eman zituen eliza, egungo anbulatorioa eta udaletxea eraikitzeko.

SARATXAGA FAMILIA

Saratxaga anaiek Argentinara emigratu eta han “La Vizcaína” burdinola gobernatu zuten. Lursailak banatzeko jarri ohi den alanbre arantzadunari esker aberastu ziren. Hainbat urte geroago, Amurrion itzuli eta euren etxeak eraiki zituzten. Marcos Saratxagak Tobalina Etxea eraiki zuen, eta Justok geltokiaren kalean eraiki zuen berea. Eraikina gaur egun Virgen Niña ikastetxea da.

Saratxaga familiak ekarpenak egin zituen herrira ura ekartzeko, katekesia altxatzeko eta udaletxerako.

MENOYO FAMILIA

Añesko José Campo Menoyo Kubatik itzultako beste indiano bat izan zen. Anaia-arebeekin batera merkataritzan jardun zuen. José ama gaixotu zenean itzuli zen Amurrion, eta 1926an etxea eraiki zuen bere arebaren ondoan (Cuadra medikua).

Bere jaioterrirako sarbideak hobetzen lagundu zuen eta Añesko San Sebastian baselizaren konponketa ordaindu zuen. Horrez gain, egun institutua dagoen lursailak diru gutxiren truke saldu zituen Amurriok ikastetxea eduki ahal izateko.

ISUSI FAMILIA

Esteban Isusi Mexikon jaio zen 1881 urtean, eta 6 urte zituela itzuli zen Euskal Herrira amarekin batera. Algortan bizi ziren, baina askotan joaten ziren Amurrion osaba-izebak bisitatzen. 1933an, azkenean, etxea eraiki zuten herrian bertan. Esteban Isusik parrokiako bataitegiko kapera egiteko beharrezko dirua eman zuen. Erretaulan, amurriotar ospetsu batek emandako Guadalupeko Ama Birjinaren 1744ko mihise bat ageri da, baita Esteban Isusiren anaiorde Juan de Aranoak margoturiko euskal santuen 4 olio-pintura ere.

<https://www.amurrioturismo.com/indianoak-amurrian> (2008ko Amurrioko *Aztarnak* aldizkari etnografikoaren 35. zenbakiko gaztelaniazko artikulua batetik itzulia eta laburbildua).